


DON KLAUDIO, BILBOKO EUSKALDUNEN BIHOTZA

Karmel aldizkarian idaztean, nekez zahartzen diran gaiak eta bizi luzeko pertsonaiak erabili nahi izaten ditugu. Gurea ez da kazetaritza, ez da eguneroko bizitzari pulstua hartzea. Batzuetan gaiak berez-berez agertzen jakuz, gure gogoan eta aldizkarian lekutxua egin nahirik. Beste batzuetan, ostera, etorri ez dira etortzen eta ekarri egin behar, bilatu egin behar han hor hemen. Oraingoan ez dakit etorri egin dan ala ekarri egin dodan, baina ikusteko modukoa agertu jat behintzat: DON KLAUDIO.

Klaudio Gallastegi Zenarruzabeitia Elorrión jaio zan 1906ko zemendiaren 8an. 100 urte bete dira oraintxe. Denborak guztia croan ohi dau bere ibilian. Gizon handi harek lorratz sendoagoa itzi behar ebalakoa neukan... Eta itziko eban, ziur asko, hainbesteren bihotzean. Dana dala, aurten haren jaiotzaren mendeurrena eta ez dot uste komunikabideetan hots handirik atera dauanik. Holakoxeak gara, izan be: ahazkorrak, unean-unean bizi garenak, ikuspegi zabalik bakoak. Ez gara ohartzen gure sustriak lehenean dagozala, joan ziranekin zorretan gagozala.



Iragana ostu deuskun mamu ilun horri astinaldia emon eta barruan eukan zati bat bota eragin deusagu. “Zatitxu bat” esatera ninoian, baina gure gaurko pertsonaia ez da “zatitxua”, gizon zatia, gizon galanta baino. Goazen haren bizitzari begirada bat emotera:

Elorrioko eskolan eta Elgetako Maristetan

Bera Bilboko San Antonekin guztiz bat eginik agertu arren, elorriarra dana edonork daki. Elorrioko Aldape auzoan jaioa. Hamabi neba-arreba ziran. 1917ko gripe bildugarriak eroan eutsazan bere arreba Juanita eta Karmen, astebeteko aldeaz. Elorrioko udaletxeko behean atondurik egoan eskolara joan ohi zan, gainerako neskato-mutikoak legez. Eraztun eta zigor gogorren sasoia zan. Euskeraren kontrako gerra hori Franco diktadorearen sasoikoa zala uste genduan, baina argi dago lehenagotik datorrena.

Baserri inguruko lurretan behizain eta artzain zereginetan gogortuaz joango zan gure mutikoa eta bitarteetan txori-habia bila eta olgetan bere adinekoekin. Euskera hutsean beti, euskeraz etxean, euskeraz lagunekin... gorriak ikusi behar zituan eskolan, umeak erderaz egitera zigorrez eta derrigorrez behartzen zituen maisuagaz. Behin, maisu erdaltzale eta zakarrak,



mutikoa erderan hain moldakatx ikusten ebalako haserre, gogor astindu ei eban zigorragaz eta, lurrera eraitsita hankapean harturik, saihets bi hautsi ei eutsazan basati halakoak...! Jazoe-ra hau ez eban aitatzan berak, baina horregaitik edo, harrezke-ro euskera maite-maite izan eban hil arte. Haren biografia laburra idatzi eban Anastasio Olabarriak hau dino: *quizá es la clave del amor apasionado que profesó hasta su muerte a la milenaria lengua vasca*. 60ko hamarkadan, bihotzekoak emonda medikuagana eroan ebenean, kardiologoak noiz edo noiz saihets bi hautsita izanaren seinalea aurkitu ei eutsan. Don Klaudiok umetan eskolan izaniko ezbehar batena zala autortu eutsan, beste zehaztasunik emon barik...

Elgetako Maristetara hasi zan laster. Oinez egin behar joan-etorriko bide luze eta aldapatsua.

Durangoko Jesulagunetan

Hamabi urte zituala Durangoko Jesulagunetara bialtzen dabe. Mutiko handi eta trauskil antzekoa, lagunak "el pastor" esaten eutsiena. Elorrioko maisuaren zigor eta eraztunak gorabehera, erderaz trakets egiten eban. Goian aitatu dogun biografia laburrean Anastasio Olabarriak jazoriko hau dakar. Klaudio mutikoaren lehengusu bat be Jesulagunen ikastetxeko ikaslea zan. Behin, lehengusuak ikastetxera huts egin ebala eta, Errektoreak haregaitik itaundu ei eutsan; erderaz, jakinal! Eta Klaudiok erantzun: *-Al primo, le ha pasado el tren y no ha venido*. Lehenengo unean, sustoa Errektoreak! Trenak zapaldu ete eban egoan, baina gero konturatu zan trenak ihes egitea esan nahi ebala...

Cervantes-en hizkuntza aitatu dogu, baina honen ama dan Cicerón-ena ikasten be ez eban bide gozoa izan gure gaztetxuak. Beti izan ohi dira ikastetxeetako irakasleen artean pertsona argi eta jatorren batzuk, ume euskaldunen barri ondo dakienak, hau da, erdarazko edo latinezko gramatikan izan ohi dituen eragozpenak esperientziaz dakienak. Durangon A. La-

rrarte izan ei zan holakoa, Klaudiori latinezko sintaxiaren bidea erraztu cutsana. *Kili-kili* aldizkarian, behin, umeak eginiko itaun-sail bati erantzun behar izan eutsan. *Seminarioan euskerarik?* -itaundu cutsien hareek. Don Klaudiok erantzun: *-Bai, zera! Seminaria heldu eta lehenengo egunean hiru gramatika jarri eustezan aurrean: erderazkoa, latinezkoa eta griegozkoa... Eta hirurak ikasi behar norberarena bazterturik! Buruz ikasi behar deusik ulertu baga.*

Jesulagunetako irakasleak, beste guztiak legez, etxerantz joko eban, ikaslerik onenak Jesusen Lagundira begira jarritz. Durangon ikasle zan sasoian, Lutxi haren amak zer edo zer entzun eban, antza, hareek Loiolarako bidea erakutsi nahi eutsielan bere semeari eta hau esan ei eutsan Jesulagun baten aurrean: *Klaudio, entzun dot: oneek, Jesuitak, eurekin eroateko asmoa daukela, baña entzun; lenengo abade izango zara, eta gero... zeuk nai dozuna.*

Gasteizko Seminarioa

Amaren esana gogoan geratu jakon. Abade izan nahi eban gazte-gaztetarik. Durangon olerkari ospetsua izango zan Esteban Urkiaga "Lauaxeta" ezagutu eban. Hau Klaudio baino zaharragoen taldean izango zan, ziur asko. Hiru bat urte alkarregaz eginda banandu ziran: Esteban Loiolara jesulagun izateko asmoaz eta Klaudio Gasteizko seminaria abade ikasketak egitera. Hona hemen Klaudiok bere lagunari eskeiniriko ahalpaldi bi:

"Urkiaga laguna, gogoratzen zaitut,
ikastaroak zugaz nik egin baditut,
Josulaunen etxean Durangon alkarraz
iru bat urteetan bizi nintzan zugaz.

Mutil mardul argia bai burudun betik,
txiki txiki giñanok bai zugan lagunik.
Bekokia zabala, begiak argiak,
ikastetan aurrengo, gorengo jolasak".

Laukiztarrak itzi egin eban gero Jesusen Lagundia, buru eta bihotz olerki eta bestelako idazkiak lantzen eta Aberriaren aldeko zereginetan murgiltzeko. Ospe handia lortu eban eta haren olerkiak askoren eskuetara heltzen ziran. Klaudiok be, gaztetxutan lagun izan eban haren lanak gogotsu irakurtzen zituan. Fusilatu ebelako barria jakin ebanean, sentimendu handiko ahapaldiak idatzi zituan Aberriagaitik bizia galdu eban olerkariaren omenez.

Komillasera

Azkenez, Komillas-era joko eban, Kantabriako bazter zoragarri horretara. Barrero be Josulagunen artera. Han jarraitu eban, eliz ikasketak amaitu eta abade egin arte. Filosofian eta teologian bietan lortu eban doktore-titulua eta ezin hobeto jantzi zan hizkuntza klasiko eta humanitateetan. Nork pentsatuko eban halakorik, gaztetxutan erderaz hain trakets egiten ebanean eta laguneren artean "el pastor" ezizenez ezaguna zanean? Komillas bera eta komillastar batzuk, esaterako A. Nieto, bihotzean sartu jakozan betiko. Bere aldetik be gomuta hareek biziagotzen ahalegintzen zan. Hara eginiko joan-etorriak zirala, hango ikasle ohien urteroko batzarrak eta jatorduak zirala, ez eukan ahazteko bazter zoragarri ha.

Paiueta eta Montoriako artzain ona

Elorrioko barrutietan behizain eta artzain jarduten eban mutikoa Kristinauen artzain on bihurtu jaku eta Arabako Urizahararako auzo bi ipini deusiez bere ardurapean: Paiueta eta Montoria. Orduan Gipuzkoa eta Bizkaia Gasteizko elizbarrutikoak ziran eta abade gazte askok, gehienak ez esatearren, Arabako herri txiki eta auzoetan izaten eben abadetzako estreinaldia. Arabako mendialde haretan, oso-osoa nekazaritza eta artzaintzari emona zan haretan, ikustekoa izango zan Don Klaudio! Gazte-gaztea, ia metro biko altuera (1,89 m) eta ehun kilotik gora, ule latza eta sudur kakoa, aurpegi zabal irribarretsua,

kristal lodidun betaurrekoetan zehar begira. Herritxu honetan abade-bokazioen hazia ugari erein eban Don Klaudiok eta ahalegin horrek emon eban frutua: A. Arrieta josulagun eta mi-siolari izango zana eta Montorian Velasco anaiak abade dioze-siarrak izango ziranak. Abundiok oraintsu arte Los Rios-ko mi-sioetan jardun dau eta Konstantinok Karrantzan eta Bilboko parroketan. Konstantino Velasco Bilbo aldean ezaguna eta nahiko ospetsua izan da.

Don Klaudiok, beraren abade-lanean izango zituan baliabi-derik indartsuenak, katekesia eta sermolaritza, landu zituan ahalegin biziz Paiueta-ko parrokan. Elizako ateak itxita, aurrez goitik behera idatziriko sermoia buruz botatzeko saioak egiten ei zituan. Saio honek aldi luzean eta ustea galdu barik eginik, apurka-apurka, erraztasun handia hartu ei eban eta baita aurrez ezer idatzi barik bat-batean berba taxuz eta jasez egiteko konfiantza lortu be. Harrezkero ez eban sermoirik idazten eta horregaitik ez eban sermoirik itzi bere idazki eta paper artean. Beraz, Paiueta Don Klaudioren katekista eta sermolari eskola bihurtu zan. Han eginiko ahaleginei esker, Kristoren barri ona iragartzeko bidea libre eta zabal izan eban.

Gorlizko ume gaixoen aita

Urtebete baino ez eban egin Arabako mendialdean eta las-ter Gorlizko Umeen Sendategiko kapilau izendatu eben. Adin eta urritasun fisiko desbardinak zituen umeak aurkitu zituan han. Txikitxu hareek maitasun behar handia euken eta Don Klaudio, bihotz handi-handikoa, oso-osorik hareei emonda bi-zi zan. Gauza hunkigarriak kontatzen ditue sasoi haretan ume izan ziranak. Maite-maite izan zituan umeak. Berak emoten eutsen heziketa gozotasunez eta maitasunez betea zan. Ezin ahaztuzkoak dira batez be lehenengo jaunartzerako prestatzen izaten zituen jardunaldiak. Bizitzari bere esanahi betea aurki-tzen irakasten eutsen, egunetik egunera euren ezin eta hutsu-neak gainditzen, pozik bizitzen, kantatzen, otoitz egiten, guzu-



rra eta bidegabekeria gorrotatzen eta batez be alkar maite izaten. 1937an umeak atzerrira Frantziara joan beharra izan eben. Hareetariko batek, Amaliatxuk, holan kontatzen deusku joan ziran unea eta handik barrero etxeratu ziranekoa:

“Nos despidió en el Puerto Franco de Santurce con un *hasta pronto* sin poderse contener...”

“Al regresar de Francia nos hizo un recibimiento apoteósico, no cabía en sí de gozo...”

1938an Bilboko San Antongo Parroko izendatu eben eta Gorlizko Sendategiko umeak tristuraz bete ziran. Betiko euren izango zalakoan... eta kendu egin eutsen aita ona. Lehengo testigu berak holan agertzen deusku une hau:

“Se nos cayó el cielo y nos hundió, no teníamos consuelo, seguimos llorándole durante mucho tiempo...”

La primera visita que nos hizo después de su marcha fue de júbilo inenarrable... Sin entrar en el Pabellón *se sentó en las escaleras* porque no le dejábamos llegar. Abrió el manteo y a todos, arrinconados dentro, con su calor humano, *nos tuvo largo rato*, y cuando las monjas nos recriminaban llamándonos pesadas, irrespetuosas, etc. nos defendía diciendo: *Dejad que los niños se acerquen a mí*.

Bere bizitzako azken aldia be Gorliz maite haretan emon eban. Gulpildun aulkitxuan egoan ordurako. Benetan hunkigarria izan ei zan, bertan izan ziranak dinoenez, umeak Frantziara eroan zitueneko 50. urteurrena. Don Klaudioak ia ezin eban berbarik egin. Galdua zan betiko haren etorria. Nekez lortzen eban pentsamenduren bat adieraztea. Esaten ebana ahopean esana zan eta gitxi ulertzen jakon... Baina ospakizun haretan hau esan eban, behintzat, ulertzeko eran: bere bokazioa umeen eta batez be gaixoen alde lan egitea izan zala eta Gorlizen emoniko urteak izan zirala zorientzuenak.

San Antonen ahots bakoan ahotsa

Eta San Anton? Zer esan Don Klaudio eta San Antoni buruz? San Anton eta Don Klaudio betiko bat egingo dira. Bilboko armarrarian San Antongo Zubia irarrita dagoanez, Parrokia haretan Don Klaudioaren giza irudi erraldoi eta maitagarria be betiko irarrita geratuko da. Bilboko euskaldunak hara joko dabe mulzoka, haren gizatasunaren heroa hartzera, euskal jendeak hainbat unetan behar eban oxigeno apur baten bila, bidegabekeria salatzen eban profeta-ahotsa entzutera, otoitz egitera, Jainkoari kantatzera, ahots batera eta ahots askotara, baina bihotz batez kantatzera. Ahots bakoan ahots bihurtu zan Don Klaudio San Antongo Parrokian.

Anastasio Olabarriak dino, 1938ko maiatzaren 1ean (domenke) Don Klaudio Gallastegi Zenarruzabeitia San Antonen sarztea lurrikara espiritual antzekoa izan zala. Aurreko parrokoa, Don Enrike, sermolari moteltxua ei zan. Sermoiak ondo ida-

tziak, baina ahots mehe eta motelaz deklamatuak... Meza nagusian berrogeita hamar bat lagun hortxe-hortxe. Gehiago ez! Hortik behera! Beste erraldoi hau sotanaz eta eliz atorraz jantzita trumoi-ahotsez Kristoren barri ona hots egiten agertu zanean, ahoa zabalik eta harrituta geratu ziran guztiak. Hia beste gauza bat zan. Jesusen Ebanjelioaren indarra sumatzen zan haren sermoietan, profeten eta Joan Bataiatzailearen durundua. Jesusen askatasuna, ausardia eta era berean haren maitasuna eriozan elorriarraren predikazioari. Hañrezkero ahorik aho bala-bala zabaldu zan haren ospea eta jendetza handia etorren San Anton ingurura; askok elizan ezin sartu eta kanpoan geratu behar. Don Klaudiok orduan eta gartsuago hots egiten eutsen Kristoren barri ona. Jesusen ebanjelioa... ez teoriaz eta berba gozo eta politez irakatsia, bizitzari eta eguneroko arazo garratzei ezarria baino. San Markosen ebanjelarioko 6, 30-34 zatitxua dakarsku horrek gogora:

“Txalupatik jaitsi zanean, jendetza handia ikusi eban Jesussek. Errukitu egin jaken, artzainik bako ardiak legez egozalaiko, eta irakasteari ekin eutsan luze eta zabal”.

Bai, artzainik bako ardiak legez ziran San Antonera hurre ratzen ziranak. Francoren diktadurapean hizkuntza, kultura, gure gauzak zapalduak ziran. Zer edo zer behar sasoi haretako ezari eta egoera baltzari aurre egiteko. Unean-unean behar zana, Jainkoak hialdua... Gerra osteko Bilbok, batez be Bilbo euskaltzale eta zapalduak, halako gizona behar eban. Ahots bakoen ahots bihurtu zala esan dogu. Bai, isilik egotera behartuen bozgorailu bihurtu zan. San Anton Parrokiako eliztarrak bisitatzean, familia behartsu askoren egoera tristeaz konturatu zan. Harcetariko asko pobretasun gorrian, miserian bizi ziran. Era askotako dramak ikusi zituan, bere begiz ikusi be. Ama eta ume ugari familietan eta aita falta. Gerran hila ez zanean, kartzelan, ihes eginda edo erbestean. Gerraren erpekaden lorratza familietan, irabazleen legea goitik ezarrita... Horren aurrean, Bibliako Profeten antzera, garratz berba egiten eban bidegabekeriaren aurka. Eragin handia izan eben haren sermoiak eta

salatariak be han izaten ziran zer entzungo elizako jende artean sartuta. Salaketak etorri ohi jakozan sarri-sarri, baina artzain onak ardien arduraz bizi behar eta ezin zan isilik egon ikusten zituan hareen aurrean...

Lehenengo salaketak izan ostean, hurrengo domekan, jendea erne-erne egoan San Antongo mezan Don Klaudiok zer esango. Salatua izan zala esanaz hasi eban hitzaldia eta baekiala salatzailea entzule artean zala... Baina ironia erabili eban, halakoetan sarri egiten ebanez: *Iskerrak agintariak salatariak baino burutsuago diran* -esan eutsen eta hau gehitu eban: *Dei egiten deusuet halako kale, zenbaki eta solairuan dagoan etxebizitzara joan zaitezten; han ikusiko dituzue, nik ikusi ditudanez, zazpi ume hotzez dardaraka izara zikin baten azpian*. Halakoak behin eta barriro ikusita, ahots ha ezin zan isildu harrezkero.

Don Klaudioren aurkako salaketak eta kexak eliz agintariarenenganaino heltzen ziran; Gipuzkoa eta Bizkaia Gasteizko Elizbarrutikoak ziranean, Gasteizko Gotzainak eskatzen eutsazan kontuak San Antongo abadeari: Francisco Javier Lauzurikak eta Carmelo Ballesterrek. Geroago, Bilboko Gotzainak: Casimiro Morcillok eta Pablo Gurrpidek. Behin, Casimiro Morcillo Bilboko Elizbarrutiko lehenengo Gotzainak deitu eutsan gotzaindegira. Hara heltzean, Gotzainagaz batera, beretzat bape atsegina ez zan gizon bat aurkitu eban Don Klaudiok: Prentsa eta Propagandako Ordezkarria. Haren bahetik pasatzen ziran komunikabideak, eta elizetako sermoietan be musturra sartu nahi eban. Beraz, baeban motiborik Don Klaudiogaz haserre egoteko. Hau gotzaindegira heldu zaneko, aulkia hartzeko be ia astirik emon barik, Prentsako Ordezkarri hori txakurrenak esaten hasi jakon, irainak eta ahora etorkozan baltzenak. Don Klaudiok ezelako ikara barik entzun ei eban zaparrada guztia. Horretan, bere buruaz eta bere herbetaren garratzaz harriturik edo, esan ei eutsan: "No vaya a pensar Vd. que soy un anticlerical. Tengo un hermano sacerdote y una tía monja...". Eta Don Klaudiok erantzun: "Eso no me vale, porque yo tengo un hermano que es el mejor ebanista de Elorrio, pero, en mi vida



he clavado bien un solo clavo". Gotzainak, Don Casimiro Morcillok, barre-zantzo handi bat egin eban eta kontu handiagoaz ibiltzeko aholkua emon eutsan irribarrez. Holantxe amaitu zan bisita ha.

Horren antzekoa jazo jakon andra elizkoi eta gobernuaren aldeko batzuekin be. Bisitan etorri jakozan, baina ez gozo. Agiraka egin edo lotsea emon nahirik agertu ziran. Hareetariko bat goiko politikari baten arreba edo zan... Katekisten artean egoan halako eta halako emakumea kentzeko esan eutsien gogor. Abertzalea zan, kontizu, emakume ha eta horregaitik baztertu behar zan, haren ustez, katekista-zereginetik. Ona zan Don Klaudio halako arrazoi zentzun bakoei jaramon egiteko! Orduan, politikari haren arreba haren, tente-tente eta tonu altuan esan ei eutsan: "Olvida Vd., que está hablando con la hermana de (...)?". Don Klaudiok erantzun: "No por cierto, bien se ve que su hermano ha agotado el talento de la familia". Eta errespetuz aterako bidea erakutsi eutsen...

Gobernuagazkoa bete nahi eben salatariengan ez eze, aberatsengan be izan eben eragina haren sermoiak. Izan be, sekulako indarra cuken haren ahotan Epulon aberatsaren eta Lazaro txiroaren parabolak. Entzuleak dardarka jartzen ei zituan hori azaltzen hasten zanean; antzeko zauskada eragiten ei eban Azken Juizioko sermoia egiten ebanean be: "Gose nintzan ez zeunsten jaten cmon". Beste hau be haren gai maiteetarikoa zan: Maitasuna eta parkamena.

Txiroen egoera agerian ipiniz eta bidegabekerien aurka esanikoak aberatsen kontzientziak astindu zituen eta arranguraz beterik etortzen jakozan asko eta asko txiroentzat laguntza emotera. Don Klaudioren eskutik igarotzen zan hori guztia. Parrokian era askotako ekintzak eratzen ziran. Don Klaudio zan guztiaren bihotza, baina bera ez zan nahikoa hango behar eta arazo guztiei erantzuteko. Holan sortu eban Parrokietako Misiolariak izeneko andrazkoen Institutua. Honeck laguntzaile ezin hobeak izango zituan karidade egintzak burutzeko, katekesirako, sakramentuetarako, elizkizunetarako, gaixoak bisitatzeke... "Behartsuak beti izango dituzue zeuen artean" esan eban Jesusek. Baina behartsuak ez dira guk halakotzat hartzen ditugunak bakarrik. Askatasun bakoak, zapalduak, kultura, hizkuntza, ohiturak eta abar debekupean dituenak... horreek guztiok diru gitxi daukenak baino ia txiroagoak dira. Horreei guztiei leku egin eta laguntzen eutsen Don Klaudiok.

San Antongo Parrokian ospetsuak ziran katekesia eta domeketako euskal meza. Ospetsua zan hango abesbatza. Katekesiak ekintza-sail zabala hartzen eban. Hor sartzen ziran, esaterako, katekesi-katekesiaz gainera, Jon Gotzon Etxebarriaren euskerazko eskolak, Jose Antonio Retolazaren Kili-Kili. Izan be, Don Klaudioren meritua ez da guztia bereganatzea, besteen hainbat eta hainbat ekinbideri leku egin eta laguntzea baino. "Kili-Kili" mutiko euskalduna San Antonen jaio zan. Pozik egoan Don Klaudio haren jaiotzaz; aterpea eta laguntza eskeini eutsazan, baina bera ez zan haren aita. Haren sortzailea Jose Antonio Retolaza zan. Hori gauza jakina da honezkero, baina

San Antongo domeketako euskal meza Don Klaudiok sortua dala uste dau askok eta ez da halan; hori be Jose Antonio Retolazak sortua da. San Anton ekinbide txalogarri askotarako gunea izan da, neurri handi baten Don Klaudiori esker. Gogoeta egiteko lekua, bidegabekerien aurka protesta egiteko lekua. Euskal herritar asko han itxita egonak dira. Gorago esan dogunez, era guztietako behartsuak zituen hango atearak zabalik. Horma hareek berbetan balekie, zenbat kontu esango leukeen...! Hormak mutu irauten dabe, baina horma hareen barruan aterpea izan eben batzuk euren kronika-zatitxuak itzi deuskuez... Holako bi ekarri nahi neukez labur-labur hona: Domeketako euskal meza eta Kili-Kili.

Euskal Meza

Jose Antonio Retolaza Madrilen psikopedagogia ikasketak egiten egoala, 1963ko abenduan, Kontzilioak herri-hizkuntzak onartu zituan liturgiarako. Baina Estatuko hizkuntza ofiziala, hau da, gaztelania, hartu nahi eben askok herri-hizkuntzatzat. 1965eko urtarrilean hasiko ziran Bizkaian liturgia era barriz egiten, baina Jose Antoniok jakin eban gaztelaniaz, espainolez, izango zala aldaketa hori. Autu hori erabilen Don Klaudiok eta biak; golpe latza izango litzatekela hori gure hizkuntza eta kulturarentzat. Albait lasterren Bilbon zer edo zer egin beharko zala hori halan izan ez zedin. Uri nagusia izanik, Bilbok izan behar ebala eredu Bizkaiko gainerako herrientzat. Hasieran herri-hizkuntzan irakurgaiak ziran gehienbat eta Jose Antoniok berak prestatu eban euskarazko itzulpena Jaime Kerexetaren testuak erabiliz. Erderazkoen molde berean inprimatu eban eta, Gotzaindegiko Liturgia Batzordeak bidaltzen ebala iragarritz, Bizkaiko eliza guztietara zabaldu eban euskerazko itzulpena. Gotzain jaunak esker oneko hainbat eskutitz hartu ei zituan... Don Paulo Gurrupide zan Gotzain orduan eta gozoa jarriko zan!

1965eko Urtebarri egunerako, ustez, guztia prest eukan Jose Antoniok. Hasieran San Bizente bere parrokia etorri jakon

gogora. Izan be, San Antonen baeben nahiko buruhauste lehendik be. Baina San Bizente Parrokian ezin zan; berandu arteko orduak hartuta egozan eta ez zan bitartetxu bat be geratzen. Besterik ezean, San Antonera. Azkeneko meza 12:30etan zan eta horren ostean izango zan euskerazkoa. Ez aldare nagusian, alboko Begoñako Amarenean baino. Jende gitxi etorriko zalakoan erabagi eben holan apal-apal egitea. *Txinpartak* antzerki-taldeko gazteei eskatu eutsen ahoz aho zabaltzeko euskal meza izango zala ordu batetan. Heldu zan eguna. Jose Antonio sakristian zan abade-apaingarriak janzten. Ha izan zan izatekoa! Jende multzo ikaragarria batu zan San Anton inguruan. Aurreko mezakoak, barrukoak, ezin urten eta kanpokoak ezin sartu. Eliz atari inguruan tupust egin eben batzuk eta besteak eta bultzaka eta zarataka jardun eben jendezko baso arte haretan, kanporako eta barrurako bidea aurkitu ezinik. Halako baten argitu zan bidea eta bake santua. Hasi zan San Antongo lehenengo Euskal Meza. Jendea pozarren eta hunkiturik, begiak malkoa eriel. Berandu zan eta meza isila, sermoi bakoa izango zala erabagi eben aurrez abade biak, baina giroa pil-pil eta halako jendetza aurrean, Don Klaudiori gainez egin eutsan barruak eta sermoi gartsua egin eban unean uneko sentimenduen esanera... Hurrengo astean be barrero batuko zirala iragarri eben eta, ia ohartu barik, hauxe izan zan San Antongo meza ospetsuaren hasiera. Hainbat denboran, zapatu guztietan etorri ohi zan Jose Antonio Retolaza Madriletik domekako meza horretan esku hartzeko. Ospe handia hartu eban meza honek. Gerora 12etan ipini zan eta Don Klaudio hera izan ohi zan meza emoile eta sermolari. Laguntzaile fin-finak zituan, batez be Iñaki Olabeaga Lasalletarra eliz kantuen irakasle eta zuzendari eta Arturo Intxausti organista. Honek, hiru ahotsetara kantatzeko meza bat eta hainbat eliz kanta konposatu zituan, horreen artean "Polit ederra" ize-neko Gabon-kanta ospetsua eta Begoñako Amari eginiko kantua Don Klaudioren hitzekin: *Begoñako Andra Mari, Bizkaiko Zaindari*.



Kili-Kili

Jose Antonio Retolazak sorturiko pertsonaia maitagarria, goian adierazi dogunez. Madrilen psikopedagogia ikasketak egiten ziharduela, umeen euskera indartzeko asmoa erabilen buruan. Ezaugarriak, irudia eta abar barruan moldatu ostean, izena be pentsatu eban: Kili-Kili. Lehenengoz 1966an agertu zan, ezkutuan ateratako aldiak aldiko argitalpen moduan, San Antongo zubi ondoan jaio barri. Aterpe beroa emon eutsan Don Klaudiok mutiko euskaldun jaio barriari. Jose Antoniok,

abadea zan eta, bere buruari Kili-Kiliren aita esan beharrean osaba esaten eutsan.

Orain dala urte batzuk, *Karmel* aldizkari honetan "Gora Kili-Kili" izeneko idazlan bat idatzi neban. Hona hemen hango ataltxu bat:

"Ume euskaldunen maisu aparta; harei euskeraz bizi izaten, euskeraz barre egiten, euskeraz olgetan irakatsi deutesena. Honezkero badira 35 bat urte Bilboko San Antongo zubi ondoan jaiio zala. 1966an etorri jakun mundura. Aldi latzak ziran harek; oraingoak be ez asko gozoagoak. Ezkutu-gordeka eta kukuka hasi jakun handik. Ezin, ba, erronka handirik egin. Bildurra eta eza zan nagusi; debeku eta madarikazioak gainean; zirrikitu txikiak erabili behar agintarien zigorrari ihes egiteko. Zirrikitu horreek eliz gela eta antzeko lekuak ziran. Holan hasi zan Kili-kili lehenengo pausotxuak emoten. Baina eragozpenak eragozpen, mutikoa osasuntsu egoan. Inoren aurrean kilkildu barik, bere nortasuna geroago eta garbiago erakusten hasiko jaku. Beti be bere osabearen eskutik, lagun barriak egingo ditu; lagun euskaltzaleak. Lehengusu-lehengusinak izango dira honek. Holan, apurka-apurka familiarte barria batuko da Kili-Kiliren inguruan.

Herrietara joango da; ume euskaldunengana. Honeei euskerara darie berez-berez, baina euren hizkuntzan eskolatu barik dagoz. Kili-Kilik irakatsiko deutse euskeraz irakurtzen eta idazten. Horretarako, koadernotxu batzuk erabiliko ditu: LAN TA LAN. Baina harek, ume euskaldunak euskeraz eskolatzeaz gainera, amets ugari zituan bihotzondoan zirika. Horreei guztiei bide emon nahi eutsen eta apurka-apurka, kopau txiki eta gozotan, bere laguntxuei eskeini. Horretarako bitartekoa *Kili-Kili* aldizkaria zan. Abagunerik txikiena agertu jakonean, lehenago itxita egoan ate hori zabaldu zanean, ez eban aukerea alperrik galdu. Kili-Kili Euskal Herri osoko umeen lagun bihurtuko da; ume euskaldunen teilatu bako ikastola. Eskolako lau horma barruan jardutea ez dau bere gogoko. Haren ikastola bizitza

bera baizen zabala da. Ez dau maite toki itorik. Aldizkaria izan dau Kili-Kilik bere mezua zabaltzeko tresnarik onena. Baina honekin batera baditu beste hainbat lagungarri be: gazte-txuentzat ateratako liburuxka interesgarriak, “Kili-jaiak”, “Kili-irratia”, sariketak, txangoak Euskal Herrian zehar, zozketak... Holan, txiri-txiri, lan eta lan, ekin eta ekin aurrera egin dau. Euri ona lurak gozo-gozo hartzen dauanez, halantxe hartu da-be ume euskaldunak haren mezua. Honezkero Kili-Kili gure historiaren zatia da, baina ez lorratz batzuk itzita atzean geratu dana, eginez-eginez doan historia bizia baino”.

Luze idatzi leiteke Kili-Kili eta beronen sortzaileari buruz, baina Don Klaudio dot oraingo gaia eta haren ingurumarian gauzatu ziran ekintzak. Goazen barriro be harengana, baina bitarteko ona da Jose Antonio Don Klaudioarengana joateko eta honen eskutik ibiliko gara pixka baten.

Ibilaldiak

Txangoak egiten zalca zan gure elorriarra. Euskal Herri osoan eta munduko lurralde askotan zehar ibilia zan. Halakoetan, gehienetan, Jose Antonio Retolaza izan ohi eban lagun. *Kili-Kili* aldizkariaren 100. zenbakia Don Klaudiori eskeinia da. Don Klaudiori buruz Jose Antoniori eginiko orrialde biko elkarrizketa dator ale horretan. Orrialde biak munduko hainbat lekutan eginiko argazkiz apaindurik. Bidaia horreetan Don Klaudio kapela dotore batez jantzirik ageri da batzuetan eta buru hutsik beste batzuetan. Lehenengo argazkian Ingalaterrako Hyde Park-en datoz Jose Antonio eta biak; Don Klaudio bidaietako kapela dotoreaz. Parisko kaleetan, euritako itxia eskuman makila antzera, paseatzen eta jendea berari begira; argazki-oincan hau dator: “Paris-eko kaleetan begiratu egiten deutsoe atzetik ere”. Bigarren orrialdean, Venezuelako eliza baten ageri da eta hau dator alboan: “Don Klaudio Ameriketako euskaldunen seme-alabakaz. Venezuela”; hurrengoan, Istanbul-en Ortodoxoen buru zan Athenagoras Patriarkarekin. Beste argazki baten,

Egiptoko piramideen ondoan gameluaren gainera igotzeko prest; eta, azkenez, Nafarroako umeekin, kilitarrekin txango baten...

Kili-Kili aldizkariko ale horretan, azkenerantz, elkarrizketa egiten deutsanak, alkarregaz nondik nora ibiliak diran itauntzen deutsa Jose Antoniori eta honek erantzun:

-Ene! Luzea litzateke dana esatea... Hego Euskal Herri barruan, asko, baita Espainian ere. Gero, Frantziara, Ingalaterrara, Belgikara, Italiara... Gero Ameriketara, Venezuelan bere lekaimeen etxe bat sortzera... Kolonbiara. Geroago, Jesu Kristoren lurraldeetara: Israel, Jordania, Siria, Libano, Turkia, Egipto...

Ibilaldi honeetako jazoriko ugari ditu Jose Antoniok gومتan, baina *Kili-Kili* aldizkarian tokirik ez eta hurrengo abagune baterako itzi zituan. Nik halako bat edo hartu deutsat beste idazki batetik. Hona hemen:

Don Klaudio eta biok Parisera joan ginan. Ordurako mugak zabalik egozan ezkerre, urten ahal izan genduan -lehenengoz- Euskal Herritik. Pariseko museoak, monumentuak eta, ikustean guri begiak zabalik geratu hajakuzan... hango jendeari gure gizona -ia metro biko eta ebun eta berrogeitaz kilokoa- sotana baten barruan ikustean eta gure bizkuntza entzutean... begiak eta ahoa zabalik geratzen jakozan.

Notre Dame, Tuileries, Conciergerie, Louvre, Sorbona, Pl. La Bastille, Pl. Concordie, Panthéon... Ez genduan bazterrik ikusi barik itzi.

Parisetik Lyonera. (...) Lyonetik Arsera eta Paray le Monialera. Hemen, Santa Margarita Maria Alacoque-k agerpenak izan ebazan eleizatxoan Mezea emon gura izan eban D. Klaudiok. Sakristiara sartuaz batera... hango barre-algarak! Moja bat bertan, D. Klaudio ainako zabala eta handia! Biak alkarri begira... barreka. Besteok hareei begira, barreka... Guztioak barreka!



Don Klaudioaren biletan.


Mezerdian gero –nik erasoten niharduala– txilinak txilin zolia jo beharrean plof! egin eustalako –nik erabiltzen ez nekialako– moja guztiak purrustaka... Ha, gonorea!

Lyon-era itzuleran –trenez– D. Klaudio eta biok erdi baka- rrik kantu-hotsean etorri ginan:

*“Zezenak dira
bel-beltzak dira...
Harrapatzen bazaitu (bis)
bertan, bertan,
hilgo zaitu!”*

Halako ibilaldietan ederto asaskatzen zan gure gizona. Behin, Leireko monasteriora joan zan lagunen batzuekin. A. Agirretxe zanaren ekinbidez sorturiko ARAMI taldeko batzuk egozan han udan, ostatuan lan egin eta diru pixka bat ateratzeko. Euskaldun hareek ikustean edo, umorez piztu-piztu eginda jarri zan Don Klaudio –asko piztu beharrik ez eban izango baina– eta Gora Euskadi deiadarka hasi ei zan...

Gerora, hazurretako gaixo bildurgarriak jo ebanean, gurpildun aulkitxuan jausi baino lehenago, oinez ibiltzeko agindu



eutsan medikuak, betibe norbaitek lagunduta. Bilboko zazpi kaleetan zehar ibili ohi zan Konstantino Velasco abadea lagun ebala. Someratik pasatzean hainbat ezagun ikusten zituan han, asko eta asko San Antongo eliztarrak. Taberna ugari da Zazpi Kaleetan eta han ebizan batzuk sartu-urtenga tabernarik taberna. Orduan Malvinasko gerrak egunkarietan toki handia eukan eta irratietan eta telebistetan be ez edozelako oihartzuna. Hala-ko zurrutari batek taberna-zulotik urten eta, hanken gainean dolorez egoala, atzamarraz seinalatuz badinotso Don Klaudio-ri: “Tú tienes la culpa de lo de las Malvinas”. Eta Don Klaudiok erantzun: “Yo no sé qué tenga que ver con lo de las Malvinas, pero desde luego, *el mal vino que llevas es cosa tuya*”.

Don Klaudio euskal idazlea

Santi Onaindiak *Euskal Literatura VI* liburuan dakarrenaren ataltxu bat aldatuko dogu hona:

“Bere arima-zaintza utzi gabe, tarteka-marteka izan du astia oraindik zerbait idazteko ere. Bere euskera gozo giarrean ore-tuta, liburu auek argitara dizkigu:

1) *Galburutan*. (Bilbao, 1968). Gari-solo batean galbururik ederrenen billa dabillen baten antzera, K. Gallastegi ere, giza-

dian ibilli zaigu pentsamentu lerden billa, ederrari buruz 'bere biotz ederra ta sentibera' erakutsirik.

2) *Gabon Abestiak*. (Bilbao, 1968). Arturo Intxaustiren musika ta K. Gallastegiren letra.

3) *Sortaldean. Gabon-Abestiak*. (Bilbao, 1969). K. Gallastegiren letra ta Frantzisko Bengoa maixuaren musika.

4) *Amets eta Egi*. (Bilbao, 1973. I. Boanek irarrita. 162 orrialde. Iru zati ditu liburuak: 1) *Idaz-saioak*; 2) *Umeentzako Antzerkiak, eta* 3) *Olerkiak*. Liburu ontan, J. Anjelek dioanez, lengoz gaiñera, beste alderdi bat darakusku egilleak, ots, 'beraren adimen-kezkak, lenengo atalean; eta alderdi sendo orren ondoan, gure umeak gogo-biotzen janaria izan dezaten, arduraz eta biozkadaz' egiñiko antzerkitxoak; azkenez bere olerki 'errez eta sarkorrak'.

Lenengo saillean, ain zuzen, izpar jakingarri asko daramazkigu, berak or-emen eder-sen aundiz jasoak; ez doa iñora biotz-zauskada billa, egunero ibilliz gertatzen zaiona orixe darama idazkortz-puntaz paperera. Eta eguneroko apunte ta oar auek oso atsegin izan oi zaizkigu".

Honaino Santi Onaindiak esanak. Baina aldizkarietan erreparatu ezkeru, Don Klaudioren idazlantxu ugari aurkituko ditugu. Nik *Zer* aldizkaria aztertu dot bakarrik eta 1978tik 1985era bitartean 65 idazlan aurkitu ditut. Gehienak idazlan laburrak dira. Batzuk bertsozko lanak, ahapaldi gitxitan moldaturiko olerkitxuak. Lantzean behin, prosaz zer edo zer idatzi ondoren, gainezkaldi batek eraginda legez, bertsoak idazten ditu; ez ahapaldi asko: hiru, lau, bost...

Don Klaudio bihotz handiko euskalduna eta oso euskaltzalea zan. Euskera batua, idazkera barria, *b*-duna, eta abar sortu ziranean, elorriarra ez zan auzi horreetan sartu. Zaratarik, behintzat, ez eban atera. Berak idazteari ekin eutsan, bere erara, idazkera zaharrean, alperreko eztabaidetan denbora emon barik.

Luis Baraiazarra Txertudi